2021eko urrian erregistratutako langabezia

2021ko urrian zehar LANBIDEko bulegoetan % 0,89 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 118.429 da, aurreko hilean baino 1.063 gutxiago. Langabetu kopuruaren jaitsiera hau azken 15 urteetako 4. datu onena da. 2008ko krisian zehar eta krisi ondorengo lehen urteetan zehar (2012-2014) langabetu kopurua murriztu egiten zen urrian; 2015etik aurrera (2019an izan ezik) jaitsierak erregistratu dira.



	urr. 07	urr. 08	urr. 09	urr. 10	urr. 11	urr. 12	urr. 13	urr. 14	urr. 15	urr. 16	urr. 17	urr. 18	urr. 19	urr. 20	urr. 21
Saldoa	293	4.840	2.195	1.796	695	3.939	1.781	1.285	-823	-2.935	-1.990	-622	1.707	-6.287	-1063

Aurreko urteko urriarekin alderatuz, 20.042 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 1.190 langabe gehiago zenbatu dira.

Langabeziaren urte arteko saldoaren bilakaera



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean gutxiago murriztu da langabezia (-284) emakumezkoen artean baino (-779). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-11.246) emakumezkoen arten baino (-8.796). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate; 2020 otsailarekin alderatuz, 334 gizonez-

ko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 856 gehiago. Gaur egun langabeen % 56,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsiera handiena 25-34 adin tartean erregistratu da (-% 2,74). 54 urte gorakoen artean % 0,3 hazi da langabezia. Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 24 urte baino gutxiago dituztenen artean (-% 25,14) eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean (-% 23,38).

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urrian langabeziak behera egin du sektore guztietan, lehenengo sektorean (+% 13,11) izan ezik. Eraikuntzan (-% 1,70) eta Industrian (-% 1,35) erregistratutako jaitsierak nabarmentzen dira. Oraindik lehen lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 1,13 murriztu da. Iazko egoera-rekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (-% 16,75) eta Zerbitzuetan (-% 16,75) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 15,40 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 01 Nekazaritza, abeltzantza..... +314
- 87 Egoitzetako laguntza..... +200
- 86 Osasun jarduerak..... +175
- 81 Higiezinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak..... +97
- 53 Posta jarduerak..... +44

Aitzitik, urrian erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 85 Hezkuntza..... -623
- 56 Janari eta edarien zerbitzuak..... -141
- 78 Txikizkako merkataritza..... -117
- 93 Aisialdi, kirol jarduerak... ..... -94
- 25 Produktu metalikoen fabrikazioa..... -86

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.911 pertsonatan murriztu da (-% 3,08) eta epe laburrekoa 848 pertsonatan hazi (+% 1,47). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabe-en artean murrizketa eman da (-% 12,40) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 16,40 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 60.068 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 50,7a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Urriko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 0,88 murriztu da, irailean baino 178 langabe gutxiago, 19.957 langabe guztira. Gipuzkoan % 1,62 murriztu da, 510 pertsona gutxia-go daude langabezian irailarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.917koa da); 2021eko urrian bilakaera onena izan duen lurraldea da. Azkenik, Bizkaian, irailean baino 375 langabe gutxiago daude (% 0,55eko murrizketa), langabetu kopurua 67.555ekoa da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio hoberena % 17,22ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 15,90eko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 12,95 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 121 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 0,52), Gasteizen 285 pertsonatan murriztu da (-% 1,81) eta Donostian 140 pertsonatan murriztu da (-% 1,82). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Oarsoaldea (-127), Durangaldea (-114) eta Bidasoa Behera (-74) izan dira. Bestalde, Arabar Errioxan (+122), Uribealdean (+42), Txorierrin (+30) eta Arabako Lautadan (+27) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 20,31), Sestao (% 18,00), Balmaseda (% 16,52), Alonsotegi (% 16,01) eta Ortuella (% 15,29%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko urrian 40.294 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 610 langabe gehiagok. Langabeen % 34,0k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.133 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,7 dira horiek. 18.161 langabek (% 15,3), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,1), Araban % 33,2koa da eta Bizkaian % 33,3koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.8 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 12,5 puntu murriztu da.

Urrian ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua hazi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,7 (18.646 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 1,50 hazi da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 1,32 murriztu. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 20,45 murriztu da, eta bertakoen artean % 13,26.

Langabe atzerritarren % 35,1 Afrika iparraldekoak dira, % 22,8 Latinoamerikatik datoz, % 18,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,7, azkenik, Asiatik. Urrian Europako Esparru Ekonomikotik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-62); Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean, aldiz, hazi da gehien (+158).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,8k (70.828 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 246 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan, % 0,35 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 14,70 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 1,53 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 16,90 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 22.195 dira, hau da, langabeen % 18,7. Talde hau urrian zehar % 0,01 hazi da, eta azken urtean % 11,69 murriztu da.

Azkenik, langabeen % 12,5ek (14.817 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 4,23 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 15,64 murriztu azken urtean.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 734 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 0,02ko murrizketa). Guztira 3.257.068 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,89 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,71 murriztu da, Errioxan % 1,81 murriztu, Kantabrian % 0,39 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 2,00 murriztu. Katalunian % 0,13 murriztu da eta Madrilen % 2,39 murriztu.

EAEn langabezia azken urtean % 14,47 murriztu da eta Espainiar Estatuan % 14,87.

Lan-eskatzaile langabeak 2021eko urrian

	Urr-2021	Ira-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	51.452	51.736	-284	-0,55
EMAKUMEZKOAK	66.977	67.756	-779	-1,15
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	9.773	9.813	-40	-0,41
GIZONEZKOAK	4.941	4.968	-27	-0,54
EMAKUMEZKOAK	4.832	4.845	12	-0,27
25-44 URTE:				
GUZTIRA	46.571	47.548	-977	-2,05
GIZONEZKOAK	19.253	19.428	-175	-0,90
EMAKUMEZKOAK	27.318	28.120	-802	-2,85
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	62.085	62.131	-46	-0,07
GIZONEZKOAK	27.258	27.340	-82	-0,30
EMAKUMEZKOAK	34.827	34.791	36	0,10
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.614	2.311	303	13,11
INDUSTRIA	13.468	13.652	-184	-1,35
ERAIKUNTZA	7.729	7.863	-134	-1,70
ZERBITZUAK	79.610	80.487	-877	-1,09
AURREKO ENPLEGURIK GABE	15.008	15.179	-171	-1,13
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.957	20.135	-178	-0,88
BIZKAIA	67.555	67.930	-375	-0,55
GIPUZKOA	30.917	31.427	-510	-1,62
EAE	118.429	119.492	-1.063	-0,89

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.965	10,7%	-74	-1,83	-793	-16,67
Oarsoaldea	3.598	9,9%	-127	-3,41	-603	-14,35
Donostia-S.Seb.	7.547	8,5%	-140	-1,82	-1.581	-17,32
Donost.Mendebaldea	3.114	8,5%	-52	-1,64	-419	-11,86
Tolosaldea	1.934	8,2%	-47	-2,37	-442	-18,60
Urola Erdia	1.184	7,7%	-4	-0,34	-265	-18,29
Goiherri	1.604	7,5%	-28	-1,72	-323	-16,76
Deba Garaia	2.467	8,2%	-28	-1,12	-451	-15,46
Deba Behera	2.785	10,5%	-7	-0,25	-401	-12,59
Urola Garaia	1.102	9,1%	0	0,00	-232	-17,39
Urola Kosta	1.617	7,2%	-3	-0,19	-334	-17,12
GIPUZKOA	30.917	8,8%	-510	-1,62	-5.844	-15,90
Vitoria-Gasteiz	15.461	12,1%	-285	-1,81	-2.278	-12,84
Aialako Ibarra	2.270	11,9%	-42	-1,82	-351	-13,39
Arabar Errioxa	710	12,9%	122	20,75	-94	-11,69
Arabako lautada	744	9,8%	27	3,77	-151	-16,87
Gorbeia inguruak	314	6,7%	-1	-0,32	-27	-7,92
Arabako Ibarrak	427	8,3%	6	1,43	-51	-10,67
Arabako Mendialdea	101	6,5%	-7	-6,48	-33	-24,63
ARABA	19.957	11,8%	-178	-0,88	-4.152	-17,22
Gobela	4.795	9,4%	-57	-1,17	-903	-15,85
Txorierri	2.282	10,0%	30	1,33	-371	-13,98
Uribealdea	3.202	9,7%	42	1,33	-344	-9,70
Durangaldea	3.498	9,4%	-114	-3,16	-558	-13,76
Busturialdea	2.186	10,2%	-30	-1,35	-407	-15,70
Lea-Artibai	999	8,3%	3	0,30	-144	-12,60
Enkarterriak	2.076	13,5%	-33	-1,56	-296	-12,48
Arratia-Zornotza	1.533	8,7%	-4	-0,26	-228	-12,95
Arratia-Nerbioi	1.355	10,4%	-1	-0,07	-228	-14,40
Bilbo	23.048	13,8%	-121	-0,52	-3.487	-13,14
Ezkerraldea	17.723	14,3%	-33	-0,19	-2.440	-12,10
Ibaizabal	4.769	11,9%	-56	-1,16	-611	-11,36
BIZKAIA	67.555	12,1%	-375	-0,55	-10.046	-12,95
EAE	118.429	11,0%	-1.063	-0,89	-20.042	-14,47

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.